



GUIPUZKOAKO AUTISMO ELKARTEAREN ALDIZKARIA

# GAUTENA

REVISTA DE LA ASOCIACION GUIPUZCOANA DE AUTISMO

32 ABRIL 07  
32 ABRIL 07

# gaur

INAUGURACION DEL NUEVO CENTRO DE  
DIA «ARTOLAMENDI» EN BERIO

27 DE ABRIL DE 2007

BLANCA MORERARI ELKARRIZKETA:

«BIOETIKAK EZINTASUNA DUTEN PERTSONENTZAT AUKERA  
ONENA EGITEN LAGUNTZEN DU»

# BLANCA MORERA: «LA BIOÉTICA AYUDA A ELEGIR LO ÓPTIMO PARA LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD»

2



¿Estoy exigiéndole demasiado o, por el contrario, me quedo corto? ¿Es justo el reparto que hago de mi tiempo entre todos mis hijos? ¿En el espectro de combinaciones integración-educación especializada, cuál es la opción más adecuada en este caso? A quienes tenemos a alguien con discapacidad a nuestro cargo nos preocupan con frecuencia cuestiones como éstas. Darles respuesta no suele ser fácil y, en esos momentos, echamos de menos cualquier cosa que arroje luz sobre nuestra reflexión. Ese elemento puede ser la Bioética. Así lo afirma Blanca Morera, psiquiatra de la Clínica Quirón y experta en dicha disciplina, que le atribuye, además, efectos beneficiosos sobre la calidad de vida de las personas con autismo.

**«LA BIOÉTICA MEJORA LA CALIDAD DE VIDA DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD»**

**GAUTENA HOY: ¿Qué es la Bioética y cómo surge esta nueva disciplina?**

BLANCA MORERA: Es una disciplina de la ética que se ocupa de los valores ocultos detrás de los hechos y aplicada a las ciencias de la vida. Ha tenido un desarrollo especialmente importante en el campo de la sanidad y de los servicios sociales, fijándose principalmente en las relaciones de asistencia que tienen lugar en estos ámbitos, lo que se llama la bioética asistencial.

Varios factores han favorecido este impulso. En primer lugar, el enorme progreso técnico de la sociedad actual nos coloca frente a la cuestión de si todo lo que es técnicamente posible es éticamente correcto. Por otra parte, desde la perspectiva de los derechos humanos, las relaciones asistenciales han pasado de enfocarse con una visión paternalista al reconocimiento de que la persona atendida tiene derecho a tomar las decisiones que le conciernen. Por último, el desequilibrio

entre unos recursos limitados y unas necesidades prácticamente infinitas obliga a establecer criterios de desarrollo y asignación de los primeros.

La Bioética trata de dar respuesta a nuestras dudas en este contexto. No es un recetario de soluciones para todas las situaciones delicadas que se nos puedan plantear en el trato a un paciente o al usuario de un determinado servicio, pero ayuda a la reflexión y proporciona las herramientas necesarias para tomar la mejor decisión.

**GH: ¿Qué relación existe entre Bioética y calidad de vida de las personas con discapacidad?**

BM: La bioética contribuye al aumento de la calidad de vida de las personas con discapacidad. Su objetivo es lograr la excelencia de la atención, esto es, que todo lo que se haga por ellos sea lo mejor que se pueda hacer. En este sentido, esta disciplina genera instrumentos para resolver los conflictos que, tarde o temprano, van a surgir: establece principios universales, una metodología en la toma de decisiones... Ayuda a elegir lo óptimo, teniendo en cuenta el aspecto moral.

**GH: ¿A qué aspectos de la actividad de los profesionales atañe principalmente la reflexión ética?**

BM: No hay nada en la actividad de los profesionales que no pueda ser objeto de reflexión bioética. No obstante, se dirige de un modo más específico a delimitar bien qué son las «buenas prácticas», es decir, cuáles son los conocimientos, habilidades y actitudes adecuados para realizar las labores de asistencia. Asimismo, pretende sensibilizar a quienes las realizan respecto a la manera correcta de tomar decisiones en su trabajo y facilita la elaboración de guías y protocolos de actuación que orienten en situaciones problemáticas.

**GH: ¿Y en el ámbito familiar?**

BM: En el caso de las familias, la bioética permite elaborar un modelo propio de implicación en la vida del pariente con discapacidad y posibilita adoptar la manera más eficaz y adecuada de apoyar su proyecto vital. También orienta sobre las decisiones de representación, aquellas que nos vemos obligados a adoptar en su nombre. Establece qué son, cómo

deben tomarse, cuáles son sus límites...

**GH: Desde una perspectiva ética ¿Qué debe preocupar en primer lugar a las instituciones?**

**«PROPORCIONA LAS HERRAMIENTAS PARA ENCONTRAR LA MEJOR SOLUCIÓN EN SITUACIONES PROBLEMÁTICAS»**

BM: No es fácil guiar a las instituciones en este sentido, pero el primer paso debería consistir en sensibilizar a profesionales, familias y, en la medida de lo posible, a los propios usuarios, sobre la necesidad de un enfoque ético de la asistencia que éstos últimos reciben. Es lo que GAUTENA está tratando de hacer: Para una comunidad dedicada a la atención de personas con discapacidad se hace imprescindible conocer los valores que animan a la institución, reflexionar sobre cuáles deberían añadirse y considerar la manera de poner todos ellos en práctica para que su actividad sea más correcta y, por tanto, generadora de mayor calidad de vida para sus pacientes o usuarios. Revisar cada actuación e identificar y resolver las situaciones problemáticas va a contribuir también a este fin.

**GH: ¿Qué aporta la bioética cuando se plantea un conflicto, una duda sobre cómo actuar con una persona con discapacidad?**

BM: Proporciona las herramientas para realizar un análisis cabal de la situación y encontrar la mejor respuesta. La reflexión bioética ha dado lugar a un marco de análisis válido para todos los casos, como también lo es la metodología propuesta, que permite establecer procedimientos concretos de resolución. Dichos sistemas pueden parecer complejos pero, una vez entrenados, dejan pocos aspectos sin percibir. En general, deben integrar la visión de diferentes personas capaces de aportar conocimientos en un estudio profundo de la situación – concreta, general y legal–, los posibles cursos de acción y a valorar cada uno de ellos. La valoración debe tener en cuenta tanto los principios morales como las consecuencias y su finalidad es poder elegir, siempre de forma revisable, la opción más respetuosa con los primeros.

Mirenko Careche

## BLANCA MORERA: «BIOETIKAK EZINTASUNA DUTEN PERTSONENTZAT AUKERA ONENA EGITEN LAGUNTZEN DU»

Gehiegi eskatzen ote diot, ala gutxiegi? Denbora banaketa zuzena egiten al dut seme-alaba guztien artean? Integrazio-berariazko hezkuntza konbinazio posible guztien artean, zein da aukera egokiena, kasu honetan? Ezintasuna duen norbait gure kargura dugunoi horrelako kezkek sortzen zaizkigu sarritan. Erantzutea ez da beti erraza izaten eta, une horietan, gure gogoetan argi egin diezagukuen edozer eskertzen dugu. Elementu hori bioetika izan daiteke. Hala dio Blanca Morera Quirón klinikako psikiatrak eta esandako jakintza adarreko adituak. Esan behar da, gainera, eragin onuragarriak egozten dizkiola bioetikari autismoa duten pertsonen bizi kalitatean.

### «BIOETIKAK EZINTASUNA DUTEN PERTSONEN BIZI KALITATEA HOBETZEN DU»

**GAUTENA GAUR:** Zer da bioetika eta nola sortu da jakintza adar berri hau?

BLANCA MORERA: Etikaren adar bat da eta gertakarien atzeko balio ezkutuez arduratzen da; bizitza zientzietan du aplikazioa. Garapen garrantzitsua izan du, bereziki, osasunaren eta gizarte zerbitzuen arloetan. Batez ere, esandako esparru horietako laguntza harremanetan garatu da; laguntzarako bioteka deritzanean, alegia.

Hainbat faktorek erraztu dute bultzada hori. Hasteko, egungo gizartearen teknika aurrerapen ikaragarriak teknikoki posible den guztia etikaren ikuspegitik ongi ote dagoen zalantzan jartzera eramaten gaitu. Bestalde, giza eskubideen perspektibatik, laguntza harremanek aldaketa garrantzitsua izan dute: lehen, ikuspegi paternalista nagusitzen zen bezala, orain, laguntza ematen zaion pertsonari bere bizitzari dagozkion erabakiak hartzeko eskubidea aitortzen zaio. Azkenik, baliabide mugatuen eta premia ia amaigabeen arteko desorekak baliabide horiek zehazteko eta garatzeko irizpideak finkatzera behartzen gaitu.

Bioetika testuinguru horretan sortzen zaizkigun zalantzak argitzen saiatzen da. Ez da, jakina, gaixo bat edo zerbitzu jakin

baten erabiltzailea tratatzerakoan sortzen zaizkizun egoera delikatu guztientzako soluzioak biltzen dituen errezeta liburua, baina gogoeta egiten laguntzen du eta ahalik eta erabaki onena hartzeko erremintak ematen dizkizu.

**GG:** Zer harreman dago bioetikaren eta ezintasuna duten pertsonen bizi kalitatearen artean?

BM: Bioetikak ezintasuna duten pertsonen bizi kalitatea hobetzen laguntzen du. Bere xedea ahalik eta artatze maila onena lortzea da; hau da, egiten zaien guztia une horretan egin daitekeen hoberena izan dadila. Alde horretatik, lehenago edo geroago azalduko diren gatazkak ebazteko balioko duten tresnak sortzen ditu bioetikak: printzipio unibertsalak ezartzen ditu, erabakiak hartzeko metodologia... Aukera onena egiten laguntzen du, alde morala kontuan harturik.

**GG:** Profesionalen jarduerako zer aspektutan du eragina, batez ere, gogoeta etikoak?

BM: Ez dago ezer profesionalen jardueran gogoeta bioetikoaren xede izan ez daitekeenik. Hala ere, «jardunbide egokiak» ongi zedarritzera zuzentzen da berariaz, hau da, laguntza lanak egiteko ezagutza, trebetasun eta jarrera egokiak zein diren mugatzen. Era berean, eginbide horietan aritzen diren pertsonak sentiberatzen saiatzen da, lanean erabaki egokiak hartzeko modua izan dezaten; eta egoera arazotsuetan orientazioa emango duten gidak eta jarduera protokoloak finkatzea errazten du.

**GG:** Eta familia barruan?

BM: Familien kasuan, bioetikak ezintasuna duen ahaidearen bizitzarekiko inplikazio eredu propioa lantzeko bidea ematen du, haren bizi proiektua sostengatzeko erarik eraginkorra eta egokiena praktikatzeko ahalbidetuz. Ordezkatze erabakiei buruzko orientazioak ere ematen ditu; bere izenean hartu behar izaten ditugun erabakiei buruzkoak, alegia. Zer erabaki diren, nola hartu behar diren, mugak non dauden...

**GG:** Etikaren ikuspuntutik, zer kezkatu behar lituzke, batez ere, erakundeak?

BM: Ez da erraza arlo honetan erakundeek zer egin behar luketen esatea, baina lehen urratsa

profesionalak, familiak eta, ahal den neurrian, erabiltzaileak berak sentiberatzea izan behar luke, azken

### «EGOERA ARAZOTSUETAN IRTENBIDE ONENA BILATZEKO ERREMINTAK ESKAINTZEN DITU»

hauek jasotzen duten laguntzaren inguruan gogoeta etikoa egin beharraz. GAUTENA horixe egiten saiatzen ari da. Ezintasuna duten pertsonak artatzera dedikatzen den komunitatearentzat ezinbestekoa da erakundearen oinarri eta arima diren balioak ezagutzea, zein gehitu behar liratekeen gogoeta egitea eta guztiak praktikan jartzeko modua zein den adieraztea, beren jarduera egokiagoa izan dadin eta, beraz, gaixo edo erabiltzaileei bizi kalitate hobea eskain diezaieten. Jarduera bakoitza berraztertzea eta egoera arazotsuak identifikatzea eta ebaztea ere lagungarri izango da helburu horretarako.

**GG:** Zer ekarpen egiten du bioetikak ezintasuna duen pertsona batekin nola jokatu zalantza edo gatazkaren bat sortzen bada?

BM: Egoera behar bezala aztertzeke eta erantzun onena aurkitzeko erremintak ematen ditu. Gogoeta bioetikoak, kasu guztietarako balio duen azterketa esparrua eratzeaz gainera, ebazpen prozedura zehatzak ezartzeko bidea ematen duen metodologia proposatzen du. Sistema horiek, itxura batean, konplexuak diruditen arren, behin entrenatu ondoren, aspektu gutxi uzten dituzte hauteman gabe. Oro har, egoeraren azterketa sakon batean –zehatza, orokorra eta legezkoa– ezagutza ekarpenak egiteko kapaz diren hainbat pertsonaren ikuspegia bildu eta osatu behar dute; egintzaren bilakaera posible guztiak aztertu eta bakoitzaren balorazioa egin. Balorazioa egiterakoan, aintzat hartu beharko dira bai printzipio moralak eta bai ondorioak. Xedea, azken batean, lehenengoak hobekien errespetatzen dituen aukera egin ahal izatea da, betiere, berriro aztertzeke moduan.

Mirenko Careche

## SERVICIO DE ATENCION DE DIA

4

### INAUGURACION DEL NUEVO CENTRO DE DIA «ARTOLAMENDI» EN BERIO

El nuevo Centro de Día ubicado en Berio (San Sebastián), viene a sustituir al viejo edificio de Ategorrieta –Villa Santa María (propiedad de las Madres Salesas, a quienes agradecemos su apoyo todos estos años)–, en el que desde comienzos de la década de los ochenta hemos venido trabajando.

El Centro de Ategorrieta, hacía tiempo que no reunía las condiciones para servir de soporte a nuestro programa de día. Nuestros esfuerzos por plantear un nuevo Servicio comenzaron hace ya muchos años. Por fin, en la primavera de 2007, podemos celebrar la inauguración del nuevo edificio –que hemos denominado «Artolamendi», recuperando así un toponímico relativo a la colina en cuya ladera se asienta–, por lo que suponen

de mejora radical en las condiciones físicas de las instalaciones.

«Artolamendi», con dos plantas y un acceso inferior accesible, dispone de en torno a setecientos metros cuadrados, en una parcela de aproximadamente dos mil, cedida por el Ayuntamiento de San Sebastián. En el acceso inferior se ha habilitado un hall de entrada que, a su vez, actuará como espacio de referencia para los usuarios.

En las dos plantas, salas y talleres dedicados a «carpintería», «apartamento», «comunicación», «sala de estar», «música», «fisioterapia», «ordenadores», «manualidades», van a permitir desarrollar en las debidas condiciones nuestro programa de atención de día. Las familias de los usuarios del Servicio, y los profesionales, disponen así mismo de espacios para su utilización –despacho, sala de reuniones, y otras instalaciones.

En este recurso, espacioso, luminoso y funcional, podremos seguir profundizando en las características de personalización e integración comunitaria de nuestro programa de atención de día. La localización de la parcela –en la zona alta de Berio, bien orientada al sol y con hermosas vistas– y las características del nuevo edificio, ofrecen condiciones idóneas para la implementación de nuestro programa.

Aprovechamos esta ocasión para agradecer a la Diputación Foral de Gipuzkoa, a la Obra Social de Kutxa y a Fundación ONCE su apoyo a éste proyecto. La dignificación de las condiciones de estos Servicios pone en valor la esencia misma del trabajo con personas con discapacidad que, en los primeros años del S. XXI, debe mostrar ambición y el máximo respeto hacia las personas a quienes dirigimos nuestra atención.

**Ramón Barinaga**  
Director

### APERTURA UNIDAD DE DIA EN LA CALLE USANDIZAGA

Como concreción de la alianza establecida el año pasado con GUREAK, que entre otras áreas contemplaba la colaboración en cuanto a los Servicios de Día, GUREAK y GAUTENA han acordado la ubicación de una Unidad de Día de personas de nuestro servicio de atención de día, en instalaciones de GUREAK, en la Calle Usandizaga (Gros).

Las instalaciones, que han experimentado una reforma integral, han sido adecuadamente concebidas y equipadas para el desarrollo de un programa de estas características. El grupo de diez usuarios de GAUTENA, junto a dos educadores, va a compartir los nuevos espacios –reservándose unos lugares de referencia para cada subgrupo– con otros usuarios de GUREAK.

Ello va a permitir a GAUTENA desahogar un tanto la presión de

número de plazas en algunos de sus Servicios y, por otra parte, nos embarca en una estrecha relación con los Servicios de Día de GUREAK, de la que deberíamos ser capaces de extraer consecuencias positivas para todos.

Queremos agradecer a GUREAK su disposición a colaborar en proyectos de esta naturaleza.

**Agustín Illera**  
Responsable del Servicio de Atención de Día

## EQUIPOS DE MEJORA. ETICA: GUIA DE BUENA PRACTICA

En colaboración con la Dra. Blanca Morera –médico psiquiatra y especialista en bioética–, el Equipo de Mejora sobre Etica, ha puesto en marcha un trabajo para la redacción de un documento que oriente, desde un punto de vista ético, la práctica en GAUTENA.

El objetivo es incorporar la perspectiva ética en nuestro quehacer cotidiano. Para ello, además del proceso de formación para profesionales y familias en el que estamos inmersos,

nos ha parecido importante poder contar con un instrumento que acerque las reflexiones de naturaleza ética de mayor rango –del tipo de los Códigos de Etica–, a la práctica diaria en nuestros Servicios, de manera de poder servir de referente para nuestro trabajo.

Se trata en definitiva, de aportar orientación a nuestro día a día, desde una exigencia ética que en absoluto podemos desconsiderar. Todo ello, en nuestra opinión, camina de la mano de

aproximaciones que tienen por objeto la personalización, que se basan en la planificación centrada en la persona, que pretenden su calidad de vida, en el marco de una Organización que quiere trabajar bajo principios de calidad y excelencia.

Confiamos en que, en los próximos meses, tengamos desarrollado este nuevo instrumento y seamos capaces de sacarle el máximo provecho.

**Equipo de Mejora sobre Etica**

## EGUNEKO ARRETA ZERBITZUA

## «ARTOLAMENDI» EGUNEKO ARRETA GUNE BERRIAREN INAUGURAZIOA BERION

Berion (Donostia) kokatu den Eguneko Arreta Gune berriak laurogeiko hamarraldiaren hasieratik martxan eduki dugun Ategorrietako Villa Santa Mariako (Bisitazioko Amen jabetzakoa; bide batez, gure esker ona agertu nahi diegu hainbeste urtetan eskaini diguten laguntzagaririk) eraikin zaharra ordeztu du.

Ategorrietako zentroak aspalditik ez zituen betetzen gure eguneko programaren euskarri izateko baldintzak. Zerbitzu berri bat abian jartzeko ahaleginak duela urte asko hasi genituen. Azkenean, 2007ko udaberrian, eraikin berria inauguratu ahal izan dugu –Artolamendi deitu diogu, kokatzen den bizkarrak garai batean zuen izena berreskuratuz– eta

esan genezake errotiko hobekuntza lortu dela instalazioen baldintza fisikoen ikuspegitik.

Artolamendi zentroak, bi solairu ez ezik, beheko sarbide iritsi-erraza du eta zazpiehun metro karratu inguru hartzen ditu, Donostiako Udalak utzitako bi mila metro karratu inguruko lur sailaren barruan. Beheko sarbidean, sarrerako hall moduko bat atondu da, erabiltzaileentzako erreferentzia toki izango dena.

Bi solairuetan, hainbat areto eta tailer kokatzen dira: aroztegia, apartamentua, komunikazioa, egongela, musika, fisioterapia, ordenagailuak, eskulanak... Horietan guztietan, gure eguneko arreta programa behar bezalako baldintzetan garatzeko aukera izango dugu. Era berean, zerbitzua erabiltzen dutenen familiek eta profesionalak ere beren espazioak izango dituzte: bulegoa, bilera aretoa eta beste zenbait instalazio.

Baliabide nasai, argitsu eta funtzional honetan, gure eguneko arreta programaren pertsonalizazio eta integrazio ezaugarrietan sakontzeko aukera izango dugu. Lur sailaren kokalekuak –Berioaren goiko aldean dago, egutera eta ikuspegi ederrekin– eta eraikin berriaren ezaugarriek oso baldintza onak eskaintzen dituzte gure programa praktikara eramateko.

Aukeraz baliaturik, eskerrak eman nahi dizkiegu Gipuzkoako Foru Aldundiari, Kutzako Gizarte Ekintzari eta ONCE Fundazioari, proiektu honi eman dioten sostenguagaririk. Zerbitzu hauen baldintzak duindu izanak balioa ematen dio ezintasuna duten pertsonen lanaren munitate berari, XXI. mendearen hasiera honetan, goranahia erakustez gainera, errespetu handiena zor baitiegu gure arreta zuzentzen diegun pertsonen.

**Ramón Barinaga**  
zuzendaria

## EGUNEKO ARRETA GUNEA IREKI DUTE USANDIZAGA KALEAN

lazio urtean GUREAKekin batera zehaztutako hitzarmenaren harira, non, beste alor batzuen artean, Eguneko Zerbitzuei buruzko lankidetzaren aurrekustean baitzen, GUREAKek eta GAUTENAK Eguneko Arreta Gunea kokatzea erabaki dute, gure eguneko arreta zerbitzuko pertsonekin, GUREAKek Usandizaga kalean (Gros) dituen instalazioetan.

Instalazioak zeharo berri dira eta ezaugarri horietako eginbideak eta programa garatzeko behar bezala pentsatu, egokitu eta hornitu dituzte. GAUTENAKo hamar erabiltzailez osatutako taldeak, bi hezitzaileak ahaztu gabe, espazio berriak erabiliko ditu –talde bakoitzarentzat erreferentziako tokiak izendatuko dira– GUREAKeko beste erabiltzaile batzuekin batera.

Horrek guztiak bide emango dio GAUTENARI bere Zerbitzuetako batzuetan duen plaza kopurua

zertxobait arintzeko eta, bestalde, GUREAKeko Eguneko Zerbitzuekin lankidetzaren estua izatera garamatza. Esan beharrik ere ez dago, kapaz izan behar genukeela lankidetzaren horretatik guztiontzako ondorio mesedegarriak ateratzeko.

Eskerrak ematen dizkiogu GUREAKI, honelako proiektuetan lankidetzaz gaitzatuz.

**Agustín Illera**  
Eguneko Arreta Zerbitzuko  
Arduraduna

## HOBKUNTZA TALDEAK. Etika: JARDUNBIDE EGOKIETARAKO GIDA

Blanca Morera doktorearekin lankidetzan –mediku psikiatra eta bioetikan espezialista– Etikari buruzko Hobekuntza Taldeak dokumentu bat idaztera bideratutako lan taldea ipini du abian. Esandako dokumentuaren xedea etikaren ikuspuntutik GAUTENAKo praktika orientatzea izango da.

Gure eguneroko zereginetan etikaren perspektiba aintzat hartzea bilatzen dugu. Horretarako, jada murgildurik gauden profesional eta familientzako heziketa prozesuaz gainera,

garrantzitsua iruditu zaigu goragoko mailako gogoeta etikoak –Etika Kodeen tankerakoak– gure Zerbitzuen eguneroko praktikara hurbilduko dituen tresna bat eskura izatea, gure lanerako erreferentzia gisa balio diezagun.

Azken batean, orientazioa eman behar digu gure eguneroko zereginetan, inolaz ere baztertu behar ez dugun exijentzia etikoaren ikuspuntutik. Hori guztia, gure iritzian, beste hainbat hurbilpenen eskutik doa,

ondorengo xede hauen atzetik: erabiltzailearen pertsonalizazioa, pertsonarengan zentratutako planifikazioa eta bizi kalitatea hobetzea; kalitate eta bikaintasun printzipioetan oinarriturik lan egin nahi duen Erakunde baten esparruan.

Espero dugu, datozen hilabeteotan, garatuta izango dugula tresna berri hau eta gai izango garela probetxu hoberean ateratzeko.

**Etikari buruzko Hobekuntza Taldea**

## LEY DE SERVICIOS SOCIALES DEL PAÍS VASCO

GAUTENA está haciendo su aportación en el marco de FEVAS, en el proceso de participación planteado por el Gobierno Vasco para la redacción de una nueva Ley de Servicios Sociales de la Comunidad Autónoma del País Vasco. Desde el ámbito asociativo se ven con un razonable optimismo las propuestas que viene haciendo el Gobierno Vasco. Se trata de avanzar hacia derechos subjetivos y exigibles de toda la ciudadanía, en base al despliegue de una Cartera de Servicios.

Aspectos relativos a copago, concertación y otros, son aquéllos sobre los que viene insistiendo el movimiento asociativo, a fin de asegurar avances reales en una futura Ley que debe suponer una mejora en el sustento de la política social en el País Vasco.

## IMPACTO ECONÓMICO

Datos aún provisionales del Informe encargado por FEVAS a la consultora B+I Strategy sitúan en torno a 188 millones de euros el impacto del gasto en discapacidad intelectual en la Comunidad Autónoma del País Vasco. De ellos 68'7 millones corresponderían a Gipuzkoa.

El impacto económico en términos de PIB asciende a 154'2 millones de euros. Esta actividad supuso en 2005 el mantenimiento de prácticamente 4000 empleos.

El impacto económico de este sector de actividad se situaría por encima de impactos generados por algunos de los principales Palacios de Congresos de nuestra Comunidad, e incluso por encima del generado por el Museo Guggenheim de Bilbao.



## SERVICIO DE APOYO A FAMILIAS

FINES DE SEMANA Y ESTANCIAS CORTAS: OFRECIMIENTO DE LA PARROQUIA NTRA. SRA. DE FATIMA DE RENTERIA

Hemos recibido de la Parroquia Ntra. Sra. de Fátima de Rentería, en las personas de Joxin Arregi y Jon Loyola, un ofrecimiento para la utilización de una planta del edificio de Capuchinos anexo a la citada parroquia.

La planta que se nos ofrece reúne buenas condiciones para que, tras una actuación de reforma y equipamiento, podamos hacer uso de la misma, apoyando así un programa de intervención que consideramos crucial en nuestra actividad.

En efecto, venimos subrayando ante la Administración Foral la importancia de este tipo de programas que favorecen el mantenimiento en el

medio natural de las personas con autismo, suponen una inestimable ayuda para las personas con autismo y sus familias, retrasan el recurso a servicios de naturaleza permanente y en su caso, los evitan.

Hemos solicitado ayuda a Diputación y otras instancias para la reforma y habilitación de estas instalaciones. Poder disponer de un espacio de uso propio para el soporte a este tipo de programas es muy importante, nos va a dar agilidad, y nos va a permitir adaptarlo mejor a las necesidades de los niños, jóvenes y adultos que de él se benefician.

**Jimmy Brosa**  
Responsable de Apoyo a Familias

## REFERENCIAS BIBLIOGRAFICAS Y WEBS DE INTERES

Título: **Los Centros Ocupacionales en Guipúzcoa**

Autor: Natxo Martínez Rueda, Almudena Fernández González

Editorial: Departamento para los Derechos Humanos, el Empleo y la Inserción Social de la Diputación Foral de Gipuzkoa  
Año: 2006

Título: **Escala de Autodeterminación Personal** (Versión para Adultos)

Autor: Michael Wehmeyer (Investigador principal). Traducido por Feli Peralta y Aitziber Zulueta  
Editorial: CEPE  
Año: 2006

Título: **Guía de actuación con el alumnado con TDA-H** (Déficit de atención con hiperactividad)

Autor: Departamento de Educación,

Universidades e Investigación  
Editorial: Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco  
Año: 2006

Título: **Niños con Epilepsia Guía para Padres, terapeutas y educadores**

Autor: Reisner, Helen  
Editorial: TRILLAS (Eduforma)  
Año: 2005

Páginas Web de Interés  
Direcciones web vinculadas a materiales educativos de diversa índole:

**Atención a la Diversidad**

<http://www.terra.es/personal/figponce/diversida.htm>

**Aula de Letras**

<http://www.auladeletras.net/material.html>

**Averroes Ret Telemática Educativa de Andalucía**

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/recursos/coeducacion.php3>



## EUSKAL HERRIKO GIZARTE ZERBI- TZUETAKO LEGEA

Eusko Jaurlaritza Euskal Autonomia Erkidegorako prestatzen ari den Gizarte Zerbitzuetarako Lege berria, GAUTENA ari da parte hartzen FEVASen bitartez ekarpenak eginez. Orain arte Eusko Jaurlaritzak egindako proposamenak baikortzat hartu dira elkartze esparrutik. Asmoa da hiritar guztientzat eskubide subjektibo eta galdagarriak lortzeko aurrera pausoak ematea, Zerbitzu Zorro bat hedatuz.

Gizarte politikako oinarrian hobekuntza bat izan beharko lukeen etorkizuneko Lege berriak benetako aurrerapenak ekarriko dituela baieztatzen da, behin eta berriaz elkartzeko mugimenduak elkar-ordainketa, adostasuna eta beste zenbait aspektu azpimarratzen ari da.

## INPAKTU EKONOMIKOA

FEVASek B+I Strategy aholkularitza enpresari eskatutako Txostenean agertzen diren behin-behineko datuen arabera, 188 milioi eurokoa da Euskal Autonomia Erkidegoan adimen umritasunak suposatzen duen gastua. Horietatik 68'7 milioi Gipuzkoari legokioke.

BPG baldintzetan gastuaren eragina 154'2 milioioi da. 2005 urtean ekintza honek ia 4000 lanpostu mantendu zituen.

Sektore honen inpaktu ekonomikoa gure Erkidegoko Kongresu-jauregi nagusiek sortutako inpaktuen ginetik geldituko lirateke, baita Bilboko Guggenheim museoaren eraginaren ginetik ere.

## FAMILIENTZAKO LAGUNTZA ZERBITZUA

ASTEBURUAK ETA EGONALDI LABURRAK: ERRENTERIAKO  
FATIMAKO AMAREN PARROKIAREN ESKAINTZA

Errenteriako Fatimako Amaren parrokiatik, Joxin Arregi eta Jon Loiolaren bitartez, esandako parrokiari itsatsirik dagoen Kaputxinoen eraikineko solairu bat eskaini zaigu, eman nahi diogun erabilpenerako.

Esandako solairuak erabilpen baldintza onak ditu, behar bezala berritu eta ekipatu ondoren. Era horretan, gure jardueran erabakigarri jukatzen dugun esku-hartze programa sendotu ahal izango dugu.

Izan ere, Foru Administrazioari behin baino gehiagotan azaldu diogun bezala, autismoa duten pertsonak beren ingurune naturalean egotea errazten duten mota honetako programak

ikaragarri lagungarriak dira autismoa duten pertsonentzat eta beren familientzat, izaera iraunkorreko zerbitzuetara jotzea atzeratzen baitute eta, zenbait kasutan, baita eragotzi ere.

Laguntza eskatu diogu Aldundiari eta beste erakunde batzuei esandako instalazioak berritzeko eta egokitzeko. Mota horretako programen euskarritarako balioko duen espazio propio bat izatea oso garrantzizkoa da guretzat, zalutasun handia emango digu eta erabiliko duten haur, gazte eta helduen premietara hobeto egokitzeko aukera izango dugu.

**Jimmy Brosa**

Familien Laguntzarako arduraduna

## BIBLIOGRAFI ERREFERENTZIAK ETA WEG ORRI INTERESGARRIAK

Izenburua: **Los Centros Ocupacionales en Guipúzcoa**

Egileak: Natxo Martínez Rueda, Almudena Fernández González

Argitaletxea: Gipuzkoako Foru Aldundiko Giza Eskubide, Enplegu eta Gizarteratze Departamendua  
Urtea: 2006

Izenburua: Escala de Autodeterminación Personal (Helduentzako aldaera)

Egilea: Michael Wehmeyer (Ikertzaile nagusia), Feli Peraltak eta Aitziber Zulueta itzulia

Argitaletxea: CEPE  
Urtea: 2006

Izenburua: **Guía de actuación con el alumnado con TDA-H** (Arreta defizita hiperaktibitatearekin)

Egilea: Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikasketak Saila

Argitaletxea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia  
Urtea: 2006

Izenburua: **Niños con Epilepsia Guía para Padres, terapeutas y educadores**

Egilea: Reisner, Helen  
Argitaletxea: TRILLAS (Eduforma)  
Urtea: 2005

Intereseko web orriak

Hainbat motatako hezkuntza materialekin zerikusia duten web helbideak:

**Desberdintasunarekiko arreta**

<http://www.terra.es/personal/fjgponce/diversida.htm>

**Hizki ikasgela**

<http://www.auladeletras.net/material.html>

**Averroes Ret Telemática Educativa de Andalucía**

<http://www.juntadeandalucia.es/averroes/recursos/coeducacion.php3>

## SERVICIO EDUCATIVO

PROPUESTA DE AULA «PEDAGÓGICO-TERAPÉUTICA».

8

El pasado día 13 de Febrero, en reunión mantenida en Azkarate Enea con Carlos Ruiz del Departamento de Educación, Gautena planteó la conveniencia de habilitar un aula para aquellos alumnos que, por circunstancias muy particulares, pueden no beneficiarse de su permanencia en medio escolar ordinario en el esquema de trabajo habitual de las aulas estables.

Carlos Ruiz, se mostró comprensivo con los planteamientos hechos por Gautena, que fueron posteriormente articulados en un

informe. El objetivo de éste aula será tratar de dar respuesta adaptada a aquellos alumnos que por problemas de salud o muy graves problemas de conducta, no pueden seguir el ritmo habitual de un aula estable, y, en la práctica, tienen tales restricciones en su funcionamiento diario, que, de hecho, no se benefician de su permanencia en entornos integrados.

Se plantea la posibilidad de ubicar un aula de estas características en un centro público, estableciendo las adaptaciones precisas para garantizar

un funcionamiento adaptado a las necesidades de estos alumnos.

Esta iniciativa es, en nuestra opinión, un ajuste necesario y excepcional a un modelo inclusivo que conserva toda su validez. El sentido común y la experiencia acumulada nos han hecho plantear esta necesidad. Esperamos la respuesta del Departamento de Educación y os mantendremos informados al respecto.

**Joaquin Fuentes**  
Asesor Científico

## HEZIKETA ZERBITZUA

IKASGELA PEDAGOGIKO-TERAPEUTIKOA ABIAN JARTZEKO PROPOSAMENA

Joan zen otsailaren 13an, Azkarate Enean Hezkuntza Saileko Carlos Ruizekin izandako bileran, Gautenak ikasgela bat prestatzea komeni litzatekeela planteatu zuen, hainbat inguruabar partikular direla-eta, eskola ingurune arruntean eta ikasgela egonkorretako ohiko lan eskeman aritzetik onurarik ateratzen ez duten ikasle haiengatik.

Carlos Ruiz ulerkor agertu zen gerora txosten batean artikulatuko ziren Gautenak egindako planteamenduekin. Ikasgela horren xedea,

osasun arazoengatik edo portaera arazo larriengatik ikasgela egonkor bateko ohiko erritmoa jarraitu ezin duten ikasleentzat erantzun egokitu ematea da, izan ere, eguneroko praktikan dituzten eragozpenak direla medio, ez baitute onurarik ateratzen ingurune integratuetan egotetik.

Ezaugarri horietako ikasgela bat zentro publiko batean kokatzeko aukera aipatu da, ikasle horien premietara egokitutako funtzionamendua bermatzeko behar diren egokitzapenak egin ondoren.

Ekimen hori, gure iritzian, premiazko eta salbuespenezko doitze neurri bat da, baina ez du esan nahi, inondik ere, hezkuntzako integrazio ereduak balioa galdu duenik. Senak eta metatutako esperientziak proposarazi digute neurri hau. Hezkuntza Sailaren erantzunaren zain geratzen gara. Jakinaraziko dizkizuegu gai honen inguruan sortzen diren berriak.

**Joaquin Fuentes**  
Zientzia aholkularia



**Bazkidetu zaituz GAUTENAra!**  
**Colabora con GAUTENA, ¡Asociate!**

Diruz lagundu nahi dut / Deseo colaborar  30 € urtean anuales   60 € urtean anuales   € urtean anuales

Izena /Nombre: \_\_\_\_\_ Abizenak/Apellidos: \_\_\_\_\_

Helbidea/Dirección: \_\_\_\_\_ PK/CP: \_\_\_\_\_

Tel. \_\_\_\_\_ e-mail: \_\_\_\_\_

Kontu zk(20 digitu)/n.º de cuenta(20 digitos): \_\_\_\_\_

Itzuli / Envía tus datos a: Apartado 1000 • 20080 DONOSTIA  
info@gautena.org • o llama al teléfono 943 215 344 telefonora deituz